

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Bi hilabeteko derrigorrezko geldialdiaren ondoren, **Berriak Triforiotik argitalpenak bere ohiko formatu inprimatua berreskuratuko du**, eta baita bere lagunei eta harpidedunei postaz egiten zaien banaketa ere. Aurreko bi zenbakiak, apirilekoa eta maiatzekoa, formatu digitalean baino ez ziren argitaratu. Bi ale horiek katedralaren webgunean kontsulta daitezke, "Argitalpenak" atalean, aldizkari honen artxibo historiko osoa dagoen lekuan.



Katedralak berriro eskegiko du "Obretan eta irekita" dioen kartela

Ekainaren 2tik asteartetik, Katedrala "Obretan eta irekita" egongo da berriro. Santa Maria Katedrala Fundazioak bere egoitza guztietara bisita libreak egiteko aukera emango duen plan berria diseinatu du, fase horretan bisitarien segurtasuna eta higiena bermatuz. Egoitza horien artean kriptak, nabea, dorrea eta ataria daude.

Horretarako, noranzko bakarreko ibilbidea prestatu da, behar bezala seinaleztatu-

tuta, bisitarien artean pilaketak eta gurutzatzeak saihesteko. Barruti bakoitzean atzealdetik argizatutako gailuak egongo dira, gune horrekin zerikusia duten alderdiak ezagutarazteko. Gainera, edozein zailtzari erantzuteko gida bat egongo da.

Era berean, interesdunek azalpenetan saskondu ahal izan dezaten, audio-giden edukia bisitarien esku jarriko da. Eduki hori doan deskargatu ahal izango da norbera-

ren telefono mugikorrean, bisita egiteko txartela jasotzean.

Aldi horretan, edukiera heren batera mugatuko da, eta derrigorrezkoa izango da maskara eta eskularruak erabiltzea katedralaren instalazioetatik igarotzean. Bisita-eredu berri horrek ekainean jarraituko du, gutxienez, astelehenetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era. Ordutegia zabaldu ahal izango da katedrala ikustera doan bisitari kopuruaren arabera.

Prezioa 8,5 eurokoa izango da tarifa arruntan, 5,5 eurokoa tarifa murriztuan eta euro batekoa 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Maskararik ez dakarten pertsonen maskara bat emango zaie, horien prezioa bisitaren prezioari gehituta. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu **945 255135** telefono zenbakira.

Fundazioak uztaitetik aurrera ohiko bisita gidatuak berreskuratzea espero du, betiere pandemiaren bilakaeraren eta osasun arloko agintariek ematen dituzten jarraibideak kontuan izanda.





Elena



Pablo



Arantza



Asier

Argazki erronka “Katedrala zure leihotik”

Maiatzean gure erronkaren parte izateko, hau da, lankidetzan oinarritutako argazkia sortzeko, hainbat irudi jaso ditugu, katedralak hiriko bizitzan duen presentzia islatzeko. Argazkiak bidali dituzten guztiek, abaguneak horretarako aukera ematen duenean Katedralera bisita gidatua egiteko doako txartela jasoko dute.



Txus



Iñaki



Sergio



Marta



Albano



Javier



Unai

Xehetasunez

Obren erritmoa egoera berrira egokitzen ari da. Katedrala lehengoratzeko lanek aurrera jarraitu dute osasun-larrialdi egoera aldarrikatu zenetik, baina egoera berrira egokitze prozesua bideratu da, eta prozesu horretan laneko eremuan segurtasuneko distantzia aplikatzea jasotzen da, laneko bilera bati dagokion argazkian ikus daitekeen bezala.



Tenpluan egiten ari diren lanak Santa Anako ataria zaharberritzea eta girolaren estalkiak bisitetarako egokitzea dira. Aiztogile kaleko 103ko eraikinaren zaharberritze lanek ere aurrera jarraitzen dute.

In Memoriam

Enrique Gonzalo-Bilbao, katedralaren babes-sistemak mantentzeko ardura duen EGB Sistemakoak. Enrique arduratzen zen alarman, suteen eta su-itxalgailuen sistemak mantentzeaz. Ohikoa zen Katedralako bihurguneetatik ikustea, instalazioen funtzionamendu egokia berrikusten. Fundaziotik bat egiten dugu bere heriotzaren ondoriozko doluminekin.

